



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduak 13

Vitoria-Gasteiz, 13 de diciembre de 2022

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

EUSKO JAURLARITZAK 6,6 MILIOI GEHIAGO EMANGO DITU 2022KO LEADER LAGUNTZETAN

- Zuzkidura horrekin laguntzak 15,7 milioikoak izango dira, eta deialdian aurreikusita zegoen finantzazioarekin konparatuz, 100 proiektu gehiago lagundu ahal izango dira
- 2017 eta 2021 urteen artean, 39 bat milioi onetsi dira LEADER programako laguntzetan

Eusko Jaurlaritzako kontseiluak 2022rako laguntzen deialdia onetsi zuen urtarrilean LEADER eremuetako landa-udalerrietako sustapen, garapen eta dibertsifikazio ekonomikorako. Zuzkidura ekonomikoa bederatzi milioi eurotik gorakoa zen. Pertsona fisiko eta juridikoak eta erakunde publikoak 398 esakera egin dituztenez, eta ahalik eta proiektu gehienei laguntze aldera, kontseiluak LEADER deialdiko funtsak 15,7 milioi euroraino handitzea erabaki du.

Laguntzak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak kudeatzen ditu MENDINET Tokiko Ekintza Taldearekin batera, eta honako hauek dira laguntza-ildoak:

- Ekintzailletza babesteko laguntzak
- Enpresak sortu, zabaldu eta modernizatzeko inbertsioetarako laguntzak
- Besteren kontura kontratatuzko laguntzak
- Leader udalerrietako azpiegituretarako, oinarrizko zerbitzuetarako eta berrikuntza-lanetarako laguntzak
- Etxebizitzarako laguntzak

LEADER eremurako aukeratutako euskal udalerriak hartzen dituen eremu geografikoan aplikatuko dira laguntzak (guztira 122; horietan, 93.000 pertsonatik gora bizi dira eta Euskadiko udal landatarrenak barne daude). Laguntzak dirulaguntza ez itzulgarriak izango dira, eta horiez baliatu ahal izango dira pertsona fisikoak edo juridikoak, publikoak zein pribatuak, nortasun juridikoa dutenak ala ez dutenak, edo unitate ekonomiko edo ondare banandu mota oro, nortasun juridikorik izan ez arren udalerrri horietan aurreikusitako proiektuak eta jarduerak egin ditzaketanak.

Azken aurrekontu-zuzkidurarekin 290 proiektu inguru finantzatu ahal izango dira; horietatik 175 sektore publikoko proiektuak izango dira, eta gainerakoak pribatuak.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

EUSKO JAURLARITZAK NATURA-BALIABIDEAK ANTOLATZEKO PLAN (NBAP) BERRIAK ONARTU DITU VALDEREJOKO ETA IZKIKO NATURA-PARKEETARAKO

- **Haien mugak aldatu, araudia sinplifikatu eta arindu eta titularrei segurtasun juridiko handiagoa eskaintzen diete**

Astearte honetan Gobernu Kontseiluan onartutako natura-baliabideak antolatzekeko plan berriek integrazio harmonikorako proposamen bat egiten dute, eta, horretarako, indarrean dagoen araudi sektorialetik datozen zehaztapenez gainera, arau eta irizpide berriak jasotzen ditu, honako hauek bermatzeko: natura-baliabideen kontserbazioa eta habitaten eta Batasunaren eta eskualdearen intereseko espezieen kontserbazio-egoera ona, bai eta natura-ondareko gainerako elementuena ere, eta espazioari lotutako sektore ekonomikoen jarduera mantentzea eta haren erabilera publiko egokia egitea.

Plan horiek natura-ondarea kontserbatzeko onartu den legeria berrira egokitzen dira, EAEko 9/2021 Lege berrira. Bi natura-parke horiek Natura 2000 Sarean sartzeak aldaketa dakar naturagune babestu horiek kontserbatzeko irizpide eta helburuetan; beraz, 9/2021 Legean ezarritakoari jarraikiz, NBAP berria prestatu behar da, kontuan hartuta, era berean, lehen dokumentuak onartu zirenetik igarotako denbora, 1998a Izkiren kasuan eta 1992a Valderejoren kasuan.

Izkiko naturaguneak lau babes-figura ditu: natura-parkea, natura-monumentua, kontserbazio bereziko eremua (KBE) eta hegaztientzako babes bereziko eremua (HBBE); bi azken horiek Natura 2000 Europako sare ekologikoaren barruan. Gauza bera gertatzen da **Valderejo-Sobron-Arzenako** eremuarekin, honako figura hauekin babestuta baitago: natura-parkea, kontserbazio bereziko eremua (KBE) eta hegaztientzako babes bereziko eremua (HBBE). Bi espazio horiei, haien natura-balioengatik, zenbait babes-figura aitortu zaizkie, eta irudi horiek zenbait dokumentu eta araudiren arabera daude araututa. Lege-esparru berriarekin bat etorritik, haien araudiak eta arauketak dokumentu bakarrean bateratu behar dira.

Espazio honetan aplikagarriak diren plangintza-tresnen edukiak jasotzeaz gainera, mugaketa geografikoak bateratzeko aprobetxatu da; horrek kudeaketa sinplifikatu eta errazten du eta berme eta segurtasun juridiko gehiago eskaintzen die naturagune babestu horietako lursailen titularrei.

Bi espazio horien araudia haien aitortpenetik indarrean sartutako gainerako lege-eskakizunen betearazpena egokitu da, eta haiek klima-aldaketara egokitzeari buruzko atala sartu da, bai eta diagnostiko bat ere; diagnostikoak bereziki kalteberak diren espezie eta habitat zerrenda bat jasotzen du, bai eta helburuak, ekintzak eta bilakaeraren adieraleak eta betearazpena ere, eta beste gune babestu batzuekiko konektibitate-plan bat. Kontuan hartuta, bestalde, Eusko Jaurlaritzaren ekonomia- eta araudi-txostenaren gomendioak eta foru-aldundiek eginiko eskaera eta Natura 2000 Sarearen lehentasunezko ekintza-esparrua eta EAEko habitaten segimendu-sistemaren ezarpena, espazioak dituen ekonomia-premiei buruzko atal bat sartu da.

Antolamendu-plan berri horiek prestatzeko, landa-lanaz gainera, azken urteotako informazio eta azterlan guztiak aztertu dira, hala nola administrazioetan eskuragarri daudenak: basoak antolatzeke planak, hidrologikoak, jarduera zinegetikoari buruzko informazioa, flora eta faunari buruzko azterlanak, interes geologikoko lekuen inbentarioa, etab.

Bestalde, Europako zuzentarauen agiriaren egokitzapenarekin, Natura 2000 Sareak segimendu-sistemak ezartzeko eta Batasunaren intereseko espezie eta habitaten kontserbazio-egoeraren berri aldi behin emateko, metodologiengatik inguruan egin behar diren segimendu eta ebaluazioak egiteko eta Batasunaren mailan ezarritako parametro zehatzetarako eskakizuna sartzen da.

IZKI

Izkiko Ondare Naturalaren Naturagune Babestua eta haren babes-eremu periferikoa Euskal Autonomia Erkidegoko hego-ekialdeko sektorean daude, Arabako Mendialdean. Ipar-mendebaldean, Gasteizko Mendiak ditu mugakide; ekialdean, Berron ibaia; hegoaldean, Toloño mendilerroko beheko aldeko haranak, eta, mendebaldean, Trebiñu. Ayuda eta Ega ibaien isuri-arroetan integratuta dago, bi horiek Zadorra-Trebiñu eta Ega unitate hidrografikoetakoak, hurrenez hurren; biak daude Ebroren mugapenean.

Natura-parkean onartutako mugaketaren inguruko aldaketak egin dira, Europako Natura 2000 Sarearen betekizunarekin bat etortzeko, bai eskuragarri dagoen kartografiaren eguneratzearen ondorioz, bai kontserbatzeko habitat edo espezieen kontserbazio-irizpideen ondorioz. Hala, naturagune horren azalera 9.473,05 hektareako azalera hartzen du, 1.173,73ko gehieneko altitudea (m), 572,51ko gutxieneko altitudea (ma) eta 805,29ko batez besteko altitudea (m).

Izki babes-eremu horrek, oro har, hiru udalerritako eta 13 administrazio-batzarretako lursailak ditu. Bernedoko azalera da handiena, eta, ondoren, Arraia-Maeztukoa. Kanpezukoa azalera osoaren % 6 baino ez da. Korresko administrazio-batzarrari dagokion guztia espazioaren barruan dago, eta erdia baino gehiago, honako hauena da: Apinaiz, Maeztu, Arluzea, Kintana, Durruma Kanpezu, Urarte eta Urturi.

Titulartasun publikoko lursail gehienak onura publikoko mendiei dagokie; haien titularrak aurretik aipatutako administrazio-batzarrak eta beste ente batzuk dira. Guztira, onura publikoko 33 mendiren lursailak daude, eta 9.104,73 hektarea (espazioaren % 96,02) hartzen dute.

Izkiko arloak honako bereizgarri hau du: baso-masa zabala, Izki ibaiaren hainbat errekek hondeatutako sakan txikiak zeharkatutako lautada hareatsu baten gainean finkatua; Izki ibaiak berak mendebaldetik ekialdera zeharkatzen du espazioa. Bertan dauden litologiek eta orientazioek landare-formazio ugari eragiten dituzte, eta ametzen basoa nabarmentzen da, Europako zabalenerako bat. Izkin, intereseko 32 habitat mota egiaztatu dira; haietatik, 10 lehentasunezkoak dira. Habitaten aniztasun horrek intereseko flora eta faunaren espezie ugari barne hartzen ditu.

Floraren espezieen artean, Olandinako urmaeleko igebelari zuriaren populazioa nabarmentzen da; hura EAeko bakarra da eta Iberiar penintsulako handiena. Faunari dagokionez, Izkin dauden espezie ornogabeen artean, intsektu saproxilikoak eta odonatuen komunitateak nabarmentzen dira. Izkiko anfibioen

taldeak 12 espezie baino gehiago ditu; haietako bat baso-igel jauzkaria da (*Rana dalmatina*), eta haren populazioa, Izkin, EAeko ugarienetakoa bat da. Eremuko ugaztunen komunitatearen artean, kiropteroak nabarmentzen dira: arratoi-belarri handia, Bechstein saguzarra, saguzar biboteduna eta ferra-saguzar handia, eta bisoi europar eta igaraba mustelidoak.

Hegaztiei dagokienez, okil ertainaren presentzia nabarmentzen da, espazio honetan 750 banako baino gehiagoko zentsua baitu; hori dela eta, Izki garrantzia berezia du Iberiar testuinguruan pizido horietan. Bestalde, Izki arrano beltzaren, sai zuriaren eta sai arrearen inguruko interes bereziko arloen barruan dago.

EAeko populazio gutxienerako eremu bat da; hartan, baso-erabilerak, abeltzaintza estentsiboa eta, neurri txikiagoan, nekazaritza-hazkuntzak nagusitzen dira. Baso-aprobetxamendua honako hauetan datza: egurra eskuratzea, sutarako sortak eta baso-garbiketak eta zur-erazketa. Era berean, koniferoen baso-plantazio batzuk ere badaude. Abeltzaintza estentsiboa, nagusiki, zaldi-azienda eta haragitarako behi-azienda oinarritzen da; haiek mendian bazkatzen dute, ia urte osoan zehar. Artaldearen presentzia ez da hain handia.

Aisiarako erabilerak igoera handia izan dute Izki natura-ondarean gune babestu aitortu zenetik; oraindik garapen-bidean bete-betean dagoen baliabide sozioekonomiko berria da.

Valderejo-Sobrón-Arzenako mendilerroa

Valderejo-Sobrón-Arzenako mendilerroaren lurralde-eremua ia 7.000 hektareako lurralde zabala da; biztanle-dentsitate baxua du bereizgarri. Espazio horrek bi sektore ditu. Bi sektore horiek Burgosko San Zadornil-ek-Obarenes mendiek bereizten dute: Valderejo sektorea, Purón ibaiak zeharkatzen duen goi-harana, eta Sobron-Arzena sektorea, Ebro eta Omecillo haranetarantz hedatzen den mendilerroan hego-ekialderen dagoen zatia duena. Bi sektore horien arteko lurraldea Gaztela eta Leon aldameneko autonomia-erkidegokoa da, eta Obarenes Mendiak izena du.

Purón ibaiak zeharkatzen duen goi-haranaren zatia Valderejo izenez ezagutzen da, eta natura-parke izendatu zuten, 1992an. Oro har, naturaltasun handiko paisaia du; ikuspuntu ekologikotik intereseko habitat ugari ditu, eta, ikuspuntu turistikotik, erakargarritasun handia.

Valderejo-Sobrón-Arzenako mendilerroaren gune babestua Mediterraneoko eskualde biogeografikoari baino ez dagokio, eta haren paisaian basoak nagusitzen dira, baina pagadi eta artadi ugari ere badaude, bai eta Mediterraneoko txilardiak eta kareharrizko hormak ere. Purón ibaiak Lerón menditik hurbil dauka iturburua eta Valderejo zeharkatzen du ipar-mendebaldetik hego-ekialdera. Zenbait erreka urak biltzen ditu, Burgos parean Ebron ibairatu aurretik. KBE berriaren barne daude honako kontzeju hauek: Bachicabo, Barrio, Boveda, Corro, Espejo, Nograro, Pinedo, Sobrón, Tobillas eta Valderejo.

Naturagune babestuaren azaleraren zatirik handiena, 5.647 hektarea (% 82,86), Valderejo-Sobrón-Arzena mendilerroaren mugen barnean dago eta jabetza publikokoa da, eta onura publikoko mendien araubide juridikoa zaio aplikagarri.

Baso, txilardi, ezpeldi eta harkaitz-hormez gain, eremu horretan biodibertsitate-ekarpen handia egiten dutelako nabarmendu behar dira istingak, urmaelak eta

hezeguneak, hala nola Polledo, Lantarón, Cocinilla, Cotillo eta Corro istingak edo Valderejoko urmaelak.

Batasunaren intereseko basoez gain, funtsean, artadiak, pagadiak edo hariztiak, pinu gorrien basoak aipagarriak dira.

Naturagune babestuaren barnean *Nacissus pseudonarcissus*, *Narcissus asturiensis*, *Narcissus bulbocodium* eta *Ruscus aculeatus* espezieetako aleak daude. Mehatxu larrian eta desagertzeko arrisku kritikoan daudenez, *Orchis cazorlensis* espeziea –populazio bakarra Valderejon dagoena da– eta *Ephedra nebrodensis* espeziea –Sobrón go haitzartean– aipatu behar dira.

Valderejo-Sobrón-Arzenako mendilerroa naturagune babestuan *Buxbaumia viridis* goroldioa dago, desagertzeko arriskuan dagoena Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoaren arabera. Deskonposizioan dagoen zuraren berriazko goroldio mota berezi bat da. Haren kontrako mehatxu nagusia zuhaitz horien baso-ustiaketa egiteko jarduerak dira, ez baitute uzten zuhaitzak berez hiltzea eta basoan egur hilik egotea.

Flora-espezie inbaditzaileen artean, *Robinia pseudoacacia* dago, Sobrón herrigunearen inguruan.

Baso horiek saguzarren bizileku dira, baita basakatuarena, muxar grisarena eta lepahoriarena ere. Basoak, halaber, basoko hegaztien, kiropteroen eta anfibioen espezie askoren gordeleku dira. Ezin konta ahala dira leize eta harpe txikiak, turismoak ustiatu ez dituenak, garrantzi handia dutenak kiropteroen komunitatearentzako (gutxienez, 12 espezie). Valderejo kiroptero-espezieen aberastasun handiena duen eremuetako bat da. Anfibioei dagokienez, gailurretako uhandrea, hegoaldeko apo pintatua eta apo lasterkaria nabarmendu behar dira. Valderejoko urmael multzoan, Lahozetik hurbil, makrofitoen, Potamogeton natans, Groenlandia densa eta Chara espezieen dentsitate handia dago. Urmaelak egoera onean kontserbatzea funtsezkoa da fauna-espezie mehatxatuen mesedetan, tartean, sugandila bizierrulea, baso-igel gorria, hegoaldeko apo pintatua eta apo lasterkaria.

Ibaiak igaraba euroasiarraren, bisoi europarraren eta ipurtatsaren bizileku dira, hala nola bertako ibai-karramarroarena, amuarrainena eta barboena. Valderejoren kasuan, ibai-sistema elementu egituratzailea da eta haraneko dibertsitatea areagotzen du Purón ibaiaren eta haren ibaiadarren barruan –Molinos erreka, kasu–

Gailur-lerro, amildegi eta ibai-arroila ugari daude, Purón ibaiaren haizpitartea kasu. Haien habitat egokia dira hegazti harraparien komunitate handi batentzat, sai arrea eta sai zuria nekrofagoak nabarmentzen direla.

Mendilerroan habia egiten dute, halaber, arrano beltzak, belatz handiak eta hontz handiak. Bonelli arranoa da azken urteotan atzeraldi handiena izan duen harrapari bat.

Ekonomia eta Ogasuna

EUSKO JAURLARITZAK ZENBAIT KONTRATU AZKARTU DITU UDALETAN, ARAUDIA ALDATUTA

Gobernu Kontseiluak arau-aldaketa bat onartu du gaur, euskal sektore publikoaren kontratazio-araubideari segurtasun juridiko handiagoa emateko eta, horrela, toki-administrazioen kontratu jakin batzuen administrazio-prozedura arintzeko. Horrela, kontratazioetan alferrikako atzerapenak saihestu nahi dira.

Horretarako, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretua aldatzea onartu da. Aldaketa horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazioko Aholku Batzordeak bere gain hartuko du toki-erakundeentzako nahitaezko txostena (kostuen egitura baloratzeko txostena) egitea. Hori horrela izango da lizitazioaren baldintza-agirietan prezioak aldizka eta aurrez zehaztuta berrikustea aurreikusten denean, herri-administrazioen obra-kontratuak eta armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuak ez diren kontratuetan, baldin eta horien prezioa bost milioi eurokoa edo handiagoa bada. Gobernu Kontseiluak onartutako aldaketa hori egin arte, toki-erakundeek Estatuaren Kontratuetako Prezioen Batzorde Nagusiari eskatu behar zioten txostena.

Kultura eta Hizkuntza Politika

ELEBIDEN HIZKUNTZA ESKUBIDEEN URRAKETAREKIN LOTUTAKO 277 INTZIDENTZIA JASO ZIREN IAZ, AURREKO URTEAN BAINO 31 GEHIAGO

- **Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuan jasotako intzidentzia gehienak kexak izan dira eta gehienak, %98,7, eskubide-urraketa euskara erabiltzeko eskubidearekin lotuta egon dira**
- **Kexa guztien % 83,7 esparru publikoan gertatutako eskubide urratzeak ziren, eta % 16,3 esparru pribatukoak**

Gaurko Gobernu Kontseiluak [Elebide](#)-Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuaren 2021eko txostena onartu du. Txosten horren arabera iaz hizkuntza eskubideen urraketekin loturiko 277 intzidentzia erregistratu ziren, aurreko urtean baino 31 gehiago. 277 intzidentzia horietatik 18 baliogabetu egin ziren aurreko baten errepikapena edo errakuntzak zirelako. Gainontzeko 259 intzidentzietatik 20 ez ziren onartu intzidentzia izapidetzeko oinarri juridikorik ez zegoelako. Ondorioz, 2021ean 239 intzidentzia izapidetu ziren.

Izapidetutako intzidentzia guztien artean, 227 kexak izan ziren, eta horien artean 224tan (% 98,7) urraketa euskara erabiltzeko eskubidearekin lotuta egon zen; eta, 3 kasutan, eskubide-urraketa gaztelaniarekin lotuta egon zen. Kexa guztien % 83,7 (190 kexa) esparru publikoan gertatutako eskubide urratzeak ziren, eta % 16,3 (37 kexa) esparru pribatuari zegozkion. Gainontzeko intzidentziak kontsultak (5), eskaerak (4) eta iradokizunak (3) izan dira.

2021. urtean zehar Elebide zerbitzura zuzendu diren intzidentzien % 61,8 (160 intzidentzia) gizonezkoek aurkeztu dituzte, eta % 28,6 (74 intzidentzia) emakumezkoek. Gainerako intzidentziak, 25, erakunde publikoek zein pribatuek aurkeztu dituzte.

Kexak esparruz esparru

Kexa guztien % 83,7 esparru publikoan gertatutako eskubide urratzeak izanik, nabarmendu behar da kexa horien guztien artean gehienak EAEko Administrazio Orokorrari (% 53,7) eta Toki Administrazioari (% 23,7) lotuta gertatu zirela.

EAEko sektore publikoaren aurkako kexei erreparatuz honako kexak jaso zituen Elebidek:

- 53 Eusko Jaurlaritzaren arau urraketan salaketak izan ziren (Osasun Saila, 20; Segurtasuna, 12; Gobernu Publikoa eta autogobernua, 11; Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumena, 3; Ekonomia eta Ogasuna, 2; Hezkuntza, 2; Turismo, Merkataritza eta Kontsumoa, 1; Berdintasun, Justizia eta gizarte Politika, 1; eta, azkenik, Kultura eta Hizkuntza Politika, 1)
- 49 Eusko Jaurlaritzaren erakunde eta sozietate publikoek jaso dituzten kexak dira (horietatik 28 Osakidetzak jaso dituen kexak dira, aurreko

urtean baino 19 gutxiago; Eusko Trenbideak 8 kexa jaso ditu; Osatek-ek 3; EITBk 2; Lanbidek 2...).

- Foru aldundien kontra aurkeztutako kexen kasuan 2021ean 2020an zehar baino kexa gehiago jaso dira, 6 gehiago, hain zuzen ere. Igoera hau Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundian gauzatu da: Bizkaiko Foru Aldundian kexak 2020an 5 izatetik 2021ean 12 izatera; eta Gipuzkoako Foru Aldundian kexarik ez izatetik bat izatera pasatu baitira. Arabako Foru Aldundian, ordea, 4 izatetik, 2 kexa izatera pasatu da.
- Toki administrazioei dagokienez, 45 kexa jaso ziren, aurreko urtean baino 9 gutxiago. Arabako udalek 2 kexa jaso zituzten 2021ean, 2020an baino 8 gutxiago. Bizkaiko udalei eta haren menpeko erakundeei dagokienez, 43 kexa jaso zituzten guztira 2021ean, 2020an baino 8 gehiago. Azkenik, Gipuzkoako udalak 2020an 9 kexa jasotzetik 2021ean bat ere ez jasotzera pasatu ziren.
- Estatuko Administrazioari eta haren erakundeei eta sozietateei (Correos y Telégrafos SA, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra, Lan Ikuskaritza, Justizia Ministerioa, Polizia Nazionala, Renfe eta SEPE) zuzendutako kexak 23ra igo ziren (2020an 13 izan ziren).

Esparru pribatuari dagokionez 37 kexa jaso ziren 2021ean, aurreko urtean baino 9 gehiago. Urraketak arlo hauetan gertatu ziren:

- Zerbitzu unibertsaletan eta interes orokorreko zerbitzuetan (22)
- Kultura, kirola eta aisia (4)
- Merkataritza (4)
- Finantzak eta aseguruak (3)
- Hezkuntza (1)
- Osasuna (1)

Esparru pribatuan irabazi asmorik gabeko erakunde zein elkarteak eta jarduera profesionalei lotutako erakunde eta enpresak hartu ziren kontuan. Kexak onartzeko orduan kontuan izan dira arlo pribatuko hizkuntza-eskubideak bermatze aldera argitaratu ziren abenduaren 22ko 6/2003 Legea - Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena-, eta uztailaren 1eko 123/2008 Dekretua -Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko Dekretua-, horietan ezartzen baita zein erakunde edo enpresa dauden legez behartuta eta zein hizkuntza-eskubide bermatu behar dituzten.

Kexen tipologia

2021. urtean Elebiden izapidetu ziren 227 kexak lau multzo nagusitan sailkatzen dira:

- **Idatzizko harremanetan gertatzen diren urraketak:** 59 kexa jaso ziren, kasu gehienetan kasu gehienetan salatze erakundeek gaztelania bakarrik erabili zutela herritarrekiko harremanetan.
- **Ahozko harremanetan izaten direnak:** 54 kexa jaso ziren; horietan herritarrek nagusiki adierazi zuten euskaraz artatuak izateko eskubidea urratu zitzaizela. Horrez gain, 24tan salatu zuten hizkuntza eskubideak, bietara, ahoz zein idatziz urratu zirela.
- **Hizkuntza-paisaia antzeman daitezkeenak (errotuluak, seinaleak...):** 37 izan ziren 2021ean. Kexa horiek bideetan eta

jendaurrean gaztelania hutsean jarritako kartelei, trafiko seinaleei eta kale zein laneko seinaleei egiten zieten erreferentzia gehienbat. 3 kasutan salatu zen erakunderen batek urraketa egin zuela, bai herritarrekiko ahozko zein idatzizko harremanetan, bai hizkuntza-paisaian.

- **Internet eta sare sozialetan ikus daitezkeenak:** arau urraketak 40 izan ziren, 2020. urtean baino 17 gehiago.

Kexen konponbidea

2021ean izapidetutako 227 kexetatik 117k (%51,5) irtenbide egokia izan zuten. 102 kexa (%44,9) izan ziren irtenbiderik gabe itxi zirenak, erreklamatuak Elebidek bidalitako jakinarazpenei erantzun ez izateagatik. Azkenik, 8 kexak (%3,5) ez zuten irtenbiderik izan herritarrak erreklamaturako entitatean emandako erantzuna ez zuelako onartu.

Elebide

Elebide-Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua 2007an jarri zen abian eta helburua da hala eskatzen duten herritarrei beren hizkuntza-eskubideak babesten laguntzea, informazioa eta aholkularitza eskainiz. Bere hastapenetik hiru dira Elebideren berezko eginkizunak:

1. Hizkuntza eskubidek sustatu eta bermatzea
2. Berme hori eraginkorra izan dadin prozedura bat ezartzea
3. Konponbideak ezartzeko ardura duten administrazioekin eta erakundeekin lankidetzan jardutea

Honako hau da, urtez urte, Elebiden jasotako kexen kopurua:

URTEA	INTZIDENTZIA-KOPURUA
2007	248
2008	310
2009	225
2010	297
2011	296
2012	340
2013	359
2014	412
2015	789
2016	576
2017	346
2018	245
2019	194
2020	246
2021	277

Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente

EL GOBIERNO VASCO AMPLÍA CON 6,6 MILLONES DE EUROS LAS AYUDAS LEADER PARA 2022

- **La dotación superará así los 15,7 millones y podrá así atender más de 100 proyectos que no podrían ser atendidos con la cuantía inicialmente prevista**
- **Entre los años 2017 y 2021 se han aprobado a través del programa LEADER cerca de 39 millones de euros en ayudas**

El consejo del Gobierno Vasco aprobó en enero la convocatoria 2022 de las ayudas destinadas a la promoción, desarrollo y diversificación económica de los municipios rurales incluidos en las zonas LEADER, con una dotación que superaba los nueve millones de euros. Ante el elevado número de solicitudes recibidas tanto por parte de personas físicas y jurídicas, así como por parte de entidades públicas, que asciende a 398 proyectos, y de cara a apoyar el mayor número posible de los mismos, el consejo ha decidido ampliar los fondos de la convocatoria LEADER hasta los 15,7 millones de euros.

Gestionadas por el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente junto con el Grupo de Acción Local MENDINET, las líneas de ayuda son:

- Apoyo al emprendimiento
- Para inversiones en la creación, ampliación y modernización de empresas
- Apoyo a la contratación por cuenta ajena
- Para las infraestructuras, servicios básicos y renovación de los pueblos Leader
- Ayudas para vivienda.

El ámbito geográfico de aplicación son los municipios vascos seleccionados para la zona LEADER (un total de 122, en los que habitan más de 93.000 personas y que incluye las zonas más rurales de Euskadi). Las ayudas tienen la consideración de subvenciones no reintegrables, y pueden beneficiarse de ellas las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, con o sin personalidad jurídica o cualquier tipo de unidad económica o patrimonio separado que, aun careciendo de personalidad jurídica, puedan llevar a cabo los proyectos y actividades previstos en los citados municipios.

Con la dotación presupuestaria final se van a poder financiar alrededor de 290 proyectos, de los cuales 175 serán proyectos del sector público y los restantes privados.

Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA LOS NUEVOS PLANES DE ORDENACIÓN DE LOS RECURSOS NATURALES (PORN) PARA LOS PARQUES NATURALES DE VALDEREJO E IZKI

- **Modifican sus delimitaciones, simplifican y agilizan la normativa y ofrecen mayor seguridad jurídica a los titulares**

Los nuevos Planes de Ordenación de los recursos naturales aprobados este martes en Consejo de Gobierno formulan una propuesta de integración armónica recogiendo, además de las determinaciones emanadas de la normativa sectorial vigente, nuevas normas y criterios para articular una propuesta de carácter integral que garantice la conservación de los recursos naturales, el buen estado de conservación de los hábitats y especies de interés comunitario y regional y demás elementos del patrimonio natural junto con el mantenimiento de la actividad de los sectores económicos ligados al espacio, así como un adecuado uso público del mismo

Son planes que se ajustan a la nueva legislación aprobada en materia de conservación del patrimonio natural, tanto en las referencias a la nueva ley vasca 9/2021. La inclusión de estos dos parques naturales en la red Natura 2000 supone una variación en los criterios y objetivos de conservación para estos espacios Naturales protegidos, por lo que, conforme a lo establecido en la Ley 9/2021 procede elaborar un nuevo PORN, teniendo en cuenta asimismo el tiempo transcurrido desde la aprobación de los primeros documentos normativos, que datan de 1998 en Izki y de 1992 en Valderejo.

El espacio natural de **Izki** cuenta con cuatro figuras de protección: Parque Natural, Monumento Natural, Zona Especial de Conservación (ZEC) y Zona de Especial Protección para las Aves (ZEPA), estas dos últimas dentro de la Red ecológica europea Natura 2000. Lo mismo sucede con el ámbito de **Valderejo-Sobron-Sierra Arcena** que está protegido con las figuras de Parque Natural, Zona Especial de Conservación (ZEC) y Zona de Especial Protección para las Aves (ZEPA). Estos dos espacios por sus valores naturales han sido reconocidos con diferentes figuras de protección que se rigen por documentos y normativas diferentes. De acuerdo al nuevo marco legal sus normativas y regulaciones, deben ser unificadas en un único documento.

Además de integrar los contenidos de los diversos instrumentos de planificación que resultan de aplicación en este espacio se ha aprovechado para unificar las delimitaciones geográficas, lo que simplifica y facilita la gestión y ofrece mayores garantías y seguridad jurídica a los titulares de terrenos en estos espacios naturales protegidos.

Se ha adaptado la normativa de ambos espacios al cumplimiento del resto de exigencias legales que habían entrado en vigor desde su declaración, incorporándose un apartado sobre adaptación de los mismos al cambio climático con un diagnóstico que incluye un listado de especies y hábitats especialmente vulnerables, objetivos, acciones e indicadores de progreso y cumplimiento, así como un plan de conectividad con otros espacios protegidos, y atendiendo a las

recomendaciones del informe económico-normativo del Gobierno Vasco y a la petición de las Diputaciones Forales y al Marco de acción prioritaria de la Red Natura 2000 y la implementación del sistema de seguimiento de los hábitats de Euskadi, se ha incluido un apartado relativo a las necesidades económicas que requiere el espacio.

Para la elaboración de estos nuevos planes de ordenación, además del trabajo de campo, se han analizado toda la información y estudios elaborados en los últimos años, como la disponible en las distintas administraciones: planes de ordenación forestal, hidrológicos, información sobre la actividad cinegética, estudios sobre flora y fauna, inventario de lugares de interés geológico, etc.

Por otra parte, con la adaptación del documento a las Directivas europeas se incorpora la exigencia de la Red Natura 2000 de establecer sistemas de seguimiento, y de evaluar e informar de forma periódica sobre el estado de conservación de las especies y hábitats de interés comunitario, seguimiento y evaluación que deben hacerse sobre metodologías y parámetros concretos establecidos a nivel comunitario.

IZKI

El Espacio Natural Protegido de Patrimonio Natural Izki y su Zona Periférica de Protección se localiza en el sector sureste de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en la comarca de Montaña Alavesa, y limita al noroeste con los Montes de Vitoria, al este con el río Berron, al sur con los valles de la parte baja de la sierra Toloño, y al oeste con el Condado de Trebiño. Está integrado en las cuencas vertientes de los ríos Ayuda y Ega, pertenecientes a las Unidades Hidrográficas Zadorra-Trebiño y Ega respectivamente, ambas en la demarcación del Ebro.

Se han realizado modificaciones sobre la delimitación aprobada en el parque natural para hacerlas coincidentes con la Red Natura 2000 de la comisión europea, como consecuencia tanto de la actualización de la cartografía disponible, como por criterios de conservación de los hábitats o especies objeto de conservación por lo que la superficie de este espacio natural abarca una superficie de 9.473,05 hectáreas, con una Altitud máxima (m) 1.173,73; Altitud mínima (m) 572,51; y Altitud media (m) 805,29.

Este espacio protegido Izki en su conjunto incluye terrenos de tres municipios y 13 juntas administrativas. Bernedo es el municipio que mayor superficie aporta, seguido de Arraia-Maeztu. Campezo/Kanpezu aporta únicamente un 6% de la superficie total. La totalidad de la Junta Administrativa de Korres se encuentra dentro del espacio, y más de la mitad de las de Apellániz/Apinaiz, Maestu/Maeztu, Arluzea, Quintana, San Román de Campezo/Durruma Kanpezu, Urarte y Urturi también.

La mayor parte de los terrenos de titularidad pública se corresponden con Montes de Utilidad Pública (MUP) cuyos titulares son las Juntas Administrativas antes referidas y otros entes. En total hay terrenos de 33 MUP que ocupan 9.104,73 ha (el 96,02% del espacio)

El área de Izki se caracteriza por una extensa masa forestal asentada sobre una planicie arenosa surcada por pequeñas barrancas excavadas por numerosos arroyos del río Izki, el cual atraviesa el espacio de oeste a este. Las diferentes litologías y orientaciones existentes originan un elevado número de formaciones vegetales diferentes, destacando el bosque de marojo, uno de los más extensos

de Europa. En Izki se ha constatado la presencia de 32 tipos de hábitats de interés, de los que 10 de ellos presentan un carácter prioritario. Esta diversidad de hábitats alberga multitud de especies de flora y fauna de interés.

Entre las especies de flora destaca la población de nenúfar blanco de la laguna de Olandina, que es la única del País Vasco y la mayor de la península Ibérica. En cuanto a fauna, entre las especies de invertebrados presentes en Izki destacan la comunidad de insectos saproxílicos y la de odonatos. El grupo de anfibios está representado en Izki por 12 especies, siendo una de ellas la rana ágil (*Rana dalmatina*), cuya población en Izki es una de las más abundantes de Euskadi. Entre la comunidad de mamíferos del ámbito destacan los quirópteros: murciélago ratonero grande, murciélago de Bechstein, murciélago bigotudo y murciélago grande de herradura, y los mustélidos visón europeo y nutria.

Por lo que respecta a las aves, resalta la presencia del pico mediano que presenta en este espacio un censo de más de 750 individuos, lo que otorga a Izki una importancia significativa en el contexto ibérico para este pícido. Por otro lado, Izki está incluido entre las áreas de interés especial para el águila real, el alimoche y el buitre leonado.

Esta una de las zonas menos pobladas de Euskadi, donde dominan los usos forestales, la ganadería extensiva y, en menor medida, los cultivos agrícolas. El aprovechamiento forestal se centra en la obtención de leñas, en suertes foguerales y limpias del bosque, y en la extracción de madera. También existen algunas plantaciones forestales de coníferas. La ganadería extensiva se basa principalmente en el ganado equino y en el vacuno de carne, que pastan en el monte durante la mayor parte del año, siendo los rebaños de ovino mucho menos frecuentes.

Los usos recreativos han experimentado un gran crecimiento desde la declaración de Izki como espacio protegido del patrimonio natural, constituyendo un nuevo recurso socioeconómico aún en pleno desarrollo.

Valderejo-Sobrón-Sierra de Árcena

El ámbito territorial Valderejo-Sobrón-Sierra de Árcena constituye un extenso territorio de casi 7.000 hectáreas, caracterizado por su baja densidad de población. Este espacio contiene dos sectores separados entre sí por el enclave burgalés de San Zadornil-montes Obarenes: el sector Valderejo, un valle alto surcado por el río Purón, y el sector Sobrón-Árcena, que comprende la porción más suroriental de la sierra hacia los valles del Ebro y Omecillo. El territorio situado entre los dos sectores, perteneciente a la vecina Comunidad Autónoma de Castilla-León se denomina Montes Obarenes

La parte del valle alto surcado por el río Purón que se conoce como Valderejo, fue declarada Parque Natural en 1992. En conjunto, constituye un paisaje de gran naturalidad, con un elevado número de hábitats de interés desde el punto de vista ecológico y un gran atractivo desde el punto de vista turístico

El Espacio Protegido Valderejo-Sobrón-Sierra de Árcena pertenece exclusivamente a la región biogeográfica mediterránea y su paisaje está dominado por bosques, aunque también hay buenas representaciones de hayedos y encinares, brezales mediterráneos y cortantes calizos. El río Purón nace en las proximidades del pico Lerón y atraviesa Valderejo de noroeste a sureste, recibiendo las aguas de varios arroyos afluentes antes de desembocar en el Ebro,

en Burgos. Los concejos ubicados en la nueva ZEC son Bachicabo, Barrio, Boveda, Corro, Espejo, Nograro, Pinedo, Sobrón, Tobillas y Valderejo

La mayor parte de la superficie del Espacio Natural Protegido, 5.647 hectáreas (82,86%), definido por los límites de la Valderejo-Sobrón-Sierra de Árcena es de dominio público, bajo el régimen jurídico de Montes de Utilidad Pública.

Además de bosques, brezales, bujedos y cortados rocosos, en este espacio destaca también la presencia de trampales, charcas y diversas zonas húmedas que le proporcionan una gran diversidad, tales como los trampales de Polledo, Lantarón, Cocinilla, Cotillo y de Corro, o las charcas de Valderejo.

Además de los bosques de interés comunitario, fundamentalmente encinares, hayedos o robledales, están los bosques de pino silvestre, cuya presencia es significativa.

En el ámbito del Espacio Natural Protegido se aprecian *Nacissus pseudonarcissus*, *Narcissus asturiensis*, *Narcissus bulbocodium* y *Ruscus aculeatus*. Debido a su grado de amenaza y peligro crítico de extinción, destacan la especie *Orchis cazorlensis* –con su única población localizada en Valderejo- y *Ephedra nebrodensis* en el desfiladero de Sobrón.

En el Espacio Natural Protegido Valderejo-Sobrón-Sierra de Árcena se encuentra el musgo *Buxbaumia viridis*, en peligro de extinción según el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas. Se trata de un peculiar musgo exclusivo de la madera en descomposición. Su principal amenaza son las prácticas de explotación forestal que eliminan los árboles antes de su muerte natural e impiden la presencia de madera muerta en el bosque.

Entre las especies de flora invasora está la *Robinia pseudoacacia*, presente en las inmediaciones del núcleo urbano de Sobrón.

En los bosques viven murciélagos además de gato montés, lirón gris y marta. Los bosques refugian a una variedad de especies de aves forestales, quirópteros y anfibios. Son innumerables las pequeñas cuevas y grutas, no explotadas por el turismo, de especial importancia para la comunidad de quirópteros (al menos 12 especies). Valderejo es considerada como una de las zonas de mayor riqueza de especies de quirópteros. En cuanto a anfibios destacan el tritón alpino, sapillo pintojo meridional y sapo corredor. Cerca de Lahoz, en la charca del complejo de Charcas de Valderejo se localizan grandes densidades de macrófitos, *potamogeton natans*, *groenlandia densa* y *chara sp.* La conservación de las charcas en estado óptimo es esencial para especies de fauna amenazada como la lagartija de turbera, la rana bermeja, el sapillo pintojo meridional, y el sapo corredor.

En los ríos hay nutrias euroasiáticas, visón europeo y turón común además de cangrejo de río autóctono, truchas y barbos. En el caso de Valderejo, el sistema fluvial constituye un elemento estructurador y diversificador del paisaje del valle dentro del río Purón y sus afluentes, sin olvidar el arroyo Molinos.

Existen numerosos cresteríos, barrancos y hoces fluviales, como el desfiladero del río Purón que constituyen el hábitat idóneo para una importante comunidad de aves rapaces entre las que destacan sobremanera las necrófagas como el buitre leonado y alimoche común.

Otras rapaces que anidan en la Sierra son el águila real, el halcón peregrino, y el búho real. El águila-azor perdicera o águila de Bonelli es una de las rapaces ibéricas que mayor regresión ha sufrido en los últimos tiempos.

Economía y Hacienda

EL GOBIERNO VASCO AGILIZA DETERMINADOS CONTRATOS EN AYUNTAMIENTOS CON UNA MODIFICACIÓN NORMATIVA

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy un cambio normativo para dotar de mayor seguridad jurídica al régimen de la contratación del sector público vasco y agilizar así el procedimiento administrativo de determinados contratos de las administraciones locales. Se pretende así evitar retrasos innecesarios en sus contrataciones.

Para ello, se ha aprobado la modificación del Decreto 116/2016, de 27 de julio, por la que la Junta Asesora de Contratación de la Comunidad Autónoma de Euskadi asumirá la realización del informe preceptivo (valorativo de la estructura de costes) para las entidades locales. Eso será así en los supuestos en los que los pliegos de la licitación contemplen una revisión periódica y predeterminada de precios en contratos distintos a los contratos de obras y a los contratos de suministro de fabricación de armamento y equipamiento de las Administraciones Públicas y cuyo precio sea igual o superior a los cinco millones de euros. Informe que hasta esta modificación aprobada por el Consejo de Gobierno las entidades locales debían solicitar al Comité Superior de Precios de Contratos del Estado.

Cultura y Política Lingüística

ELEBIDE RECIBIÓ EL AÑO PASADO 277 INCIDENCIAS SOBRE VULNERACIONES DE LOS DERECHOS LINGÜÍSTICOS, 31 MÁS QUE EL AÑO ANTERIOR

- La mayoría de las incidencias recibidas en el Servicio para la Garantía de los Servicios Lingüísticos fueron quejas y casi todas, el 98,7%, hacían referencia a vulneraciones del derecho a usar el euskera
- El 83,7% de las quejas fueron vulneraciones de los derechos acaecidas en el ámbito público; el 16,3% restante sucedió en el ámbito privado

El Consejo de Gobierno de hoy ha aprobado el informe de 2021 de [Elebide](#), el Servicio para la Garantía de los Derechos Lingüísticos. Según dicho informe, el año pasado se registraron 277 incidencias relativas a vulneraciones de los derechos lingüísticos, 31 más que el año anterior. 18 de esas 277 incidencias fueron invalidadas por ser repetición de una incidencia anterior o por contener errores. De las 259 incidencias restantes, se rechazaron 20 por no existir base jurídica para tramitar la incidencia. Por lo tanto, en 2021 se tramitaron 239 incidencias.

De todas las incidencias tramitadas, 227 fueron quejas y 224 de ellas (98,7%) hacían referencia a la vulneración del derecho a usar el euskera; en 3 casos, se vulneró el derecho a usar el castellano. El 83,7% de todas las quejas (190) fueron vulneraciones de los derechos lingüísticos acaecidas en el ámbito público y el 16,3% (37 quejas) corresponde al ámbito privado. El resto de las incidencias fueron consultas (5), solicitudes (4) y sugerencias (3).

El 61,8% (160 incidencias) de las incidencias dirigidas al servicio fueron presentadas por hombres. Y el 28,6% (74 incidencias), por mujeres. Las restantes (25 incidencias), fueron presentadas por entidades públicas o privadas.

Las quejas, por ámbitos

El 83,7% de las quejas fueron vulneraciones de derechos acaecidas en el ámbito público. Cabe destacar que la mayoría hacían referencia a la Administración General de la CAPV (53,7%) y a la Administración Local (23,7%).

Si analizamos las quejas presentadas contra el sector público de la CAPV, Elebide recibió las siguientes:

- 53 fueron denuncias de vulneraciones normativas por parte del Gobierno Vasco (Departamento de Salud, 20; Seguridad, Gobernanza Pública y Autogobierno, 11; Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, 3; Economía y Hacienda, 2; Educación, 2; Turismo,

Comercio y Consumo, 1; Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, 1; y, por último, Cultura y Política Lingüística, 1).

- 49 fueron quejas presentadas contra organismos y sociedades públicas del Gobierno Vasco (28 de ellas contra Osakidetza, 19 menos que el año anterior; Eusko Trenbideak recibió 8 quejas; Osatek, 3; EITB, 2; Lanbide, 2).
- En el caso de quejas presentadas contra las diputaciones forales, en 2021 se presentaron más quejas que en 2020; concretamente, 6 quejas más. Dicho aumento se debe a las diputaciones forales de Bizkaia y Gipuzkoa: la Diputación Foral de Bizkaia recibió 5 quejas en 2020 y 12 en 2021; y la de Gipuzkoa pasó de no tener quejas en 2020 a una queja en 2021. La Diputación Foral de Álava/Araba, por su parte, pasó de 4 a 2 quejas.
- En lo tocante a las administraciones locales se recibieron 45 quejas, 9 menos que el año anterior. Los ayuntamientos alaveses recibieron 2 quejas, 8 menos que en 2020. En lo concerniente a los ayuntamientos vizcaínos y a sus organismos dependientes, en 2021 recibieron un total de 43 quejas, 8 más que en 2020. Por último, los ayuntamientos guipuzcoanos pasaron de recibir 9 quejas en 2020 a no recibir ni una sola queja al año siguiente.
- Las quejas relativas a la administración del Estado y a sus organismos y sociedades (Correos y Telégrafos SA, Tesorería General de la Seguridad Social, Inspección de Trabajo, Ministerio de Justicia, Policía Nacional, Renfe y SEPE) aumentaron hasta 23 (frente a las 13 de 2020).

En el ámbito privado, en 2021 se recibieron 37 quejas, 9 más que el año anterior. Las vulneraciones tuvieron lugar en los siguientes sectores:

- Servicios universales y servicios de interés general (22)
- Cultura, deportes y ocio (4)
- Comercio (4)
- Finanzas y seguros (3)
- Educación (1)
- Salud (1)

En el ámbito privado se tuvieron en cuenta entidades sin ánimo de lucro y entidades y empresas ligadas a actividades profesionales. A la hora de aceptar quejas, se han considerado la Ley 6/2003, de 22 de diciembre, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias y el Decreto 123/2008, de 1 de julio, sobre los derechos lingüísticos de las personas consumidoras y usuarias, ya que son los que definen qué entidades o empresas están obligadas por ley y qué derechos lingüísticos deben garantizar.

Tipología de las quejas

Las 227 quejas tramitadas por Elebide en 2021 se dividen en cuatro grupos principales:

- **Vulneraciones acontecidas en comunicaciones escritas:** fueron 59 quejas, la mayoría para denunciar que las instituciones solo utilizaron el castellano en sus comunicaciones con la ciudadanía.
- **Vulneraciones en comunicaciones orales:** se recibieron 54 quejas, en las que ciudadanos o ciudadanas denunciaban que se había vulnerado su derecho a ser atendidos/as en euskera. Además, 24 quejas denunciaron que se vulneraron los derechos lingüísticos en comunicaciones tanto escritas como orales.
- **Vulneraciones detectadas en el paisaje lingüístico (rótulos, señales...):** fueron 37 quejas en 2021. Fundamentalmente, hacían referencia a carteles, señales de tráfico, nombres de calles o comunicaciones laborales impresos únicamente en castellano y detectados en vías o espacios públicos. En 3 casos se denunció que determinada entidad había vulnerado derechos lingüísticos en comunicaciones orales, escritas y en el paisaje lingüístico.
- **Relativas a Internet y redes sociales:** fueron 40 vulneraciones, 17 más que en 2020.

Resolución de quejas

De las 227 quejas tramitadas en 2021, 117 (51,5%) fueron resueltas satisfactoriamente. Se cerraron 102 quejas (44,9%) sin resolver, fundamentalmente porque la entidad reclamada no respondió a las notificaciones de Elebide. Por último, 8 de las quejas (3,5%) no fueron resueltas porque el ciudadano o ciudadana no consideró satisfactoria la respuesta dada por la entidad reclamada.

Elebide

Elebide, Servicio para la Garantía de los Derechos Lingüísticos, entró en funcionamiento en 2007 y su finalidad es ayudar a la ciudadanía a proteger sus derechos lingüísticos, ofreciendo información y asesoramiento. Desde sus inicios, Elebide ha tenido tres funciones propias:

1. Promover y garantizar los derechos lingüísticos
2. Implantar un procedimiento para que dicha garantía sea eficaz
3. Colaborar con las administraciones e instituciones responsables de implantar soluciones

A continuación, se define el número de quejas recibidas por Elebide, año a año:

AÑO	NÚMERO DE INCIDENCIAS
2007	248
2008	310
2009	225
2010	297
2011	296
2012	340
2013	359
2014	412
2015	789
2016	576
2017	346
2018	245

2019	194
2020	246
2021	277